

1948, Gernika. Kulturaren ekonomia irakaslea da EHUn. Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Planaren koordinatzaileetako eta Kultura Saileko aholkularia da, azkeneko sei urteetan. Sektore batzuek Ibarretxe lehendakariaren aholkularitzat ere jo dute: “Hori ez da egia. Nire ideiak balekoak badira eta norbaitengan eragiten badute, primeran. Ez naiz inongo gobernuaren ez talde politikoren aholku emaile, ordea” adierazi digu. Elkarbide ekimeneko eta Erabaki plataformako kidea da. Politikaren begirale eta analista gisara solastatu gara berarekin.

Ramon Zallo

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Jose Ramon Gomez

«Loiolako dokumentua baliagarria da epe ertainera»

ETako kidea izan zen frankismoan. Jon Juaristi nahiz Txabi Etxebarrieta izan zituen kide. Jon Juaristiren joerakoen ibilbideaz hau esan digu: “Autodeterminazioaren eta ezkeraren alorrean aritu ostean, Zuzenbidezko Estatuaren defentsa egitetik Estatua soilik defendatzera iragan dira, zuzenbidea ahaztuz. Botere zentralari atxiki dira eta beren jatorrizko komunitatearen aurka paratu”. Txabi Etxebarrietaz hauxe aldiz: “Askok diotenaren aurka, Txabi bizi balitz ETA VI.aren tesiak bere egingo zituen, ez egungo ETArenek behintzat”. Ramon Zallo ETA VI.ean eta LKIn aritu zen. 1985ean utzi zuen militantzia politikoa.

Ramon Zalloren iritziz, Espainiako Estatuia izatezko nazio anitza da, baina ez ditu Zuzenbidezko Estatuaren izaera juridikoa eta politikoa bermatzen: “Estatuak errealtate politikoa bere eragile politikoetan oinarritu behar du. Alabaina, EAEko eragile politikoek gehiengoak euskal erkidego hau subjektu politikoa dela eta Estatuarekin itun berria –Espainiarekin alde biko– negoziatu nahi duela dio, baina Estatu honek ez du betebeharrak morala eta politika bere egin. Trantsizio kaskarraren ondorioz, hori da bere defizita. Gatazka egoera honek auzi politiko honen ebazpena behar du, erabakitze esku bidean funtsatua”.

Eusko Jaurlaritza itun berria bilatzen ari da Estatuarekin. Ez al da kontraesankorra 30 urtez sustatutako marko politiko-juridiko beretik markoa aldatzea?

Ez. Kontraesanak baino eragozpenak daude. Trantsizioan (1977-1980), orain markoa aldatu nahi duten eragile politiko guztiek markoaren aurrean jarrera bateratua hartu ez izana, oztopo nagusia izan da. Herri honetako sektore batek Autonomia Estatutuaren esperientzia garatu nahi izan zuen Estatuaren markoan, eta beste sektore batek –nire burua honetan sartzen dut– ez zuen ideia horren alde egin. Alabaina, 30 urteren ostean, bi sektoreek bat egiten dute puntu batean:



“Jaurkitzearen proposamenari baietz esatea, itxia den prozesua zabaltzeko modua da. EHAK-k ezetz esaten badio, lau urteko blokeo egoera luzatuko da gutxienez. Herri honek ezin du egoera hau gehiago jasan”.

akordioa lortzeko zorian egon ziren 2006ko irailean.

Loiolako elkarriketak bideratzeko ezker abertzaleak autonomia kontzeptua bere egin zuen. Zer gertatu zen aurrerago ez joateko?

Nik ezagutu dudan Batasunaren testu zirriborroa, gatazka bideratzeko eta prozesu politiko interesgarriak eragiteko modukoa zen. Gero, ETAk presio moduko bat eragin omen zuen, hori ez dugu ziur sekula jakingo ordea. Antza

denez, testuan hasieran esaten zena baino gehiago eskatu zen gero. Eusko Legebiltzarraren eta Nafarroako Parlamentuaren hara-kiria eskatu omen zuten. Bi instituzioak desagertzea eta berauen ahalmen legegilea organo bateratua izatera pasatzea, bakoitzaren %50ak ordezkaturia.

Hori baieztatu al daiteke?

Nik espresio horiek agertzen zituen dokumentua irakurri dut. Eta hori subiranotasun ordezkatzaileraren oinarria hankaz gora jartzea da, noski.

Zure ustez blokeo egoera gainditzeko biderik ba al dago?

Trantsizioari bide emateko eta beste marko bat gauzatzeko urratsak eman ditzazketenak bi Legebiltzarrak dira. Norabide horretan aurreratzeko aurreikusia zegoen eredia egokia zen: koordinaziorako organoa. Organo bateratu honek proposamen legegileak egiteko ahalmena zuen, ez erabakitze ahalmena. Demokrazia

“PSOEek Loiolako aurreakordioak baztertu ditu. Edozein negoziazio politiko bake prozesuaren menpe jarri nahi du”

ordezkatzailerak Nafarroako Parlamentuan nahiz Eusko Legebiltzarraren oinarritzen segitzen zuen, alegia. Bigarren trantsizio moduko hau urratzen segitzeko nafarrek ez zuten besterik onartuko, noski. Alta, esperientzia berebizikoa zen une historiko politiko hau gainditzeko. Ezker abertzaleak ez zuen aukera hori ikusi, etorkizun-sen eskasa izan zuen eta horregatik gaude gauden egoeran.

Ezker abertzaleak EAJri aurpegiratu ohi dio, bere interes elektoralak oztupo direla negoziazio edo trantsizio prozesuan.

Kritika hori bidegabekoa da. Alderdiak tesitura politiko berrian kokatzeko egiten dituzten ahaleginek interes elektoral guztiak gainditzen dituzte. Lizarragaraziko Akordioak EAJri galera gehiago ekarri zion onura baino. Hauteskundeak lau urtean behin izaten dira eta prozesua oso urrutitik dator. Sakoneko arrazoia ez dira hauteskundeak edo Gobernua galtzeko beldurra. Noski, hauteskundeak galtzen badituzte honelako prozesua garatzen ari den bitartean, katastrofea izugarria izan daiteke prozesuaren bilakabidearentzat. Prozesuan jokoan dagoena alderdiak hauteskundetan galtzen dutena baino askoz garrantzizkoagoa da. Bidezkotagoa da horrela ikustea nik uste.

Ezker abertzaleak lege kanpoko egoeraz baliatzea ere leporatzen dio EAJri.

Ezker abertzalearen egoera gehien erabili duena PSOE da. Aurreko hauteskundetan EHAK aurkeztu utzi zuten, Legebiltzarreko gehiengo abertzalea oztopatzeko eta alderdi honi giltzarri izateko aukera emanez. Orain berriz alderantziz da. Orduan Estatuen nahiak eta ezker abertzalearenak egokitu ziren, orain aldez, joko politikoa bestelakoa denez, ez zaio interesatzen. PSEri ez zaio EHAK giltzarria izatea interesatzen. Estatuak ezker abertzalearen egoera erabiltzen du bere onurarako eta honen aurka. Ezker abertzalearen lege kanpoko egoera bideratzea ez dago EAJren esku.

Nola ikusten duzu Espainiako Estatuak euskal gatazkaren ebazteko orduan, beste herrien esperientziak aztertuta, Eskoziako prozesutik begiraturik, kasu.

Kanadako Gorte Gorenen erabakia egokia da gure kasuan. Honela dio: “Ez dakigu autodeterminazio eskubi-

Estatutuak ez du subiranotasunaren bidean aurrera egiteko balio. Demokrazia honek ez du bake arazoa konpontzeko balio, ezta Euskal Herrian izan den aldaketa ekonomikoa egokitzeko ere. Ajuria Eneko Itunaren porrotaren ostean lehenik eta Lizarra-Garaziko Akordioarekin gero, bigarren trantsizioa gauzatzeko nahia agertu zen.

Ba al dago bigarren trantsiziorik?

Nik amaitu ez zen trantsizioaren segidako trantsizioa deituko nuke. Akordioa zertzen ez den bitartean trantsizio hau susmo moduko zerbait da.

Nola ikusi duzu marko berria ekar lezakeen trantsizioa azken urteotan?

Oztupo nagusia trantsizioan ados jarri ez ziren bi sektoreen arteko harreman ahulak dira. Lizarra-Garaziko Akordioa krisian bukatu zen. Jaurkitzearen Autonomia Estatutu Politiko berria Espainiako Gorteek geldiarazi zutenean euskal herritarrek ez zuten egoki erantzun. 30 urteko gatazkak nekea eta gorabehera sozialak eragin ditu. Egoerak zerra baten hortzen itxura du. Loiolako elkarriketek zerra-hortzaren une gorena eta ona islatu dute. Saio hau normalizazio politikoaren azken aukera izan da, bigarren trantsizioaren gauzatzea ekar zezakeena. Eragile politikoak trantsizioa itxi eta

dea dagokigun, baina kolektibitate baten eskubidea errespetatu dadin eta Estatuak gurekin negoziatzen dezan eskubidea dugu". Eskozian ere prozesu bera ematen ari da. Ez dute autodeterminazio erreferenduma garatzeko eskubiderik, baina Britainia Handiko azkeneko lehen ministroek –Thatcher, Mayor edo Blairrek– honela esan dute: "Nor gara gu Eskoziako Parlamentuari, galdeketa egin nahi badute, ezetz esateko. Gu ez gara oztopo izango. Noski, guk ez dugu sezesioaren aldeko kanpaina egingo". Herrialde hauetan sezesioaz ari dira eta agintariek horrela jokatzeko dute. Gurean sezesioa ez da jokoa edo auzitan, gurean herritarrek federalismo asimetrikoa, konfederalismoa, kontsezionalismoa edo parteneriarioa nahi duten ezagutzeko kontsulta egin nahi da. Erki-dego historiko honek bere buruari galde diezaion baimen modukoa da kontsulta. Ea Estatuarekin negoziatu nahi duten galdetzen zaie herritarrei. Baina, tira, honez-kero ez dugu erabakitzeke ahalmena dugun galdetu beharko, Estatu hau demokratikoa ote den baizik. Arazoa Estatuaren kalitate demokratiko eskasa da.

Berriz ere blokeo egoeran gaude.

Bai. PSOEk Loiolako aurreakordioak baztertu ditu. Edozein negoziatze politiko bake prozesuaren menpe jarri nahi du. Euskal herritarrek erabakitzeke duten eskubidea onartzea ETAr ordain moduko bat ematea dela irizten du, biolentziaren amaieraren trukeko eskubidea. PSOEk ez du Loiolako aurreakordioetara itzuli nahi, iraganeko akordioa erabili ezintzat jo du eta hori akats izugarria da. Dokumentua epe ertainerako baliagarria da, bitarteko ona da bake egoeran eragile politikoak negoziatzeko berriz eseri daitezke.

Eusko Legebiltzarreko datorren osoko bilkurak egoera politikoa desblokeatuko al du?

EHAK-k kontsultari baietz esaten badio bide interesgarria zabaldu daiteke. Auzitegi Nazionalak helegite bidez geldiarazi dezake, baina bost hilabetetan

bidean aurrera egiteko aukerari eutsiko zaio. Jaurlaritzaren proposamenari baietz esatea, itxia den prozesua zabaltzeko modua da. EHAK-k ezetz esaten badio, lau urteko blokeo egoera luzatuko da gutxienez. Herri honek ezin du egoera hau gehiago jasan.

Patxi Lopez lehendakari ikusten duzu egoera horretan?

Zaila iruditzen zait, baina ez ezinezkoa. Dena den, ez dut Patxi Lopezen lidergo sendorik ikusten. PSOeri ez diot ikusten ez bake ez kultur ez ekonomia proiekturik Euskal Herriarentzat. PSOek ez dauka herritarren gehiengoak eskatzen duen aldaketa gauzatzekeko proiektu politikorik.

Hauteskuendek desblokeatu beharko dute egungo egoera.

Legealdiaren bukaerara bitartean alderdi bakoitzak herri hau eraikitzeke duen proiektua aurkeztuko du. Herritarren hainbat eskaerak tokiz kanpo ezarri dituzte alderdien proiektuak. Ongizateari buruzko proiektuak garrantzitsuak eta eztabaidatuak izango dira. Euskal Herria birpentsatzeko unea iritsi da. Eztabaidek arazoaren muinera joan beharko dute. Betebehar horretan alderdi guztiek indar berritu beharko dute.

Ezker abertzalearen aukerak barne.

Egoera egokiena ezker abertzaleak aurkezteko aukera izatea litza-teke. Nik izugarrizko garrantzia ematen diet hauteskunde hauei, berauek seinalatuko dute erabakitzeke eskubidearen bidetik joango garen edo beste ziklo luze baten barruan sartuko ote garen, biolentzia egoera jasanezina tarteko. Ezker abertzalea inkognita da. Bere jende asko kendu dute erditi. Ez dakigu nola mamituko den bere jarrera eta zein norabidetan joango den. Ez da erraza antzematen Legebiltzarreko bozketan egingo dutena. Nik ez dut argi ikusten. Ez gaude Jaurlaritzaren Estatutu Berriaren proposamena bozkatu zeneko egoeran. ■

www.argaia.com
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a




Gainera auzoa, Z/G
 2012 Olaberria
 ☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com